



GOVERNANTZA,
ADMINISTRAZIO DIGITAL
ETA AUTOGOBERNU SAILA
Enplegu Publikoko Sailburuordea

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Empleo Público

14/2026 EBAZPENA, ENPLEGU PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LAN-KONTRATUKO LANGILEENTZAT GORDETAKO LANPOSTUEI DAGOKIEN ALDI BATERAKO LAN-POLTSA OSATZEN DUTEN PERTSONEN ZERRENDAREN ARGITARATZEN DUENA, ENPLEGU PUBLIKOAREN SAILBURUORDEAREN 2025/108 EBAZPENAREN IRIZPIDEEN ARABERA.

Lehenengoa.- Enplegu Publikoko sailburuordearen 2025eko urriaren 15eko 2025/108 Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzu-prestazioak emateko lan-kontratuko langileen lan-poltsak integartzeko eta berrantolatzeko irizpideak ezarri ziren.

Bigarrena.- Ebazpen horren arabera, "lan-kontratuko langileen hautaketa-prozesuak amaitzean, lan-poltsa batzuk berrantolatu egingo dira, beste batzuk sortuko dira, eta beste batzuk, berriz, iraungi egingo dira:

- Lehendik dauden lan-poltsak berrantolatuko dira, finkatze-prozesuan deitutako lanpostu batekin identifikatzen direnak.

- Poltsa berri bat eratuko da poltsa jakin batekin identifikatzen ez den lanpostu baten hautaketa-prozesu bat deitu denean.

- Lanpostuen Zerrendako (LPZ) ezein lanposturekin identifikatzen ez diren lan-poltsak iraungi egingo dira.

Egungo kontsolidazio-prozesuetan deitu ez diren lanpostuen zerrendako lanpostuei dagozkien lan-poltsak gaur egungo baldintzetan mantenduko dira.

Horrela, aurreko paragrafoko langileak eta iraungitako poltsa bateko langileak "Poltsa iragankorra" izeneko poltsa batean sartuko dira.

Poltsa hori C eta E antzinasun-taldeetako lanpostuen salbuespenezko kudeaketan soilik erabiliko da, eta sortzen denetik 6 hilabetez soilik.

RESOLUCIÓN 14/2026, DE LA VICECONSEJERA DE EMPLEO PÚBLICO, POR LA QUE SE PUBLICA EL LISTADO DE LAS PERSONAS INTEGRANTES DE LA BOLSA DE TRABAJO TRANSITORIA CORRESPONDIENTE A LOS PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS CONFORME A LOS CRITERIOS DE LA RESOLUCIÓN 2025/108, DE LA VICECONSEJERA DE EMPLEO PÚBLICO.

Primero.- Mediante Resolución 2025/108 de 15 de octubre de 2025, de la Viceconsejera de Empleo Público, se establecen los criterios para la integración y reordenación de las bolsas de trabajo de personal laboral con las que atender las prestaciones de servicio de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos.

Segundo.-Según dicha Resolución, "A la finalización de los procesos selectivos de personal laboral unas bolsas se reordenarán, se crearán otras nuevas, y otras existentes, se declararán a extinguir:

- Se reordenarán las bolsas ya existentes que se identifican con un puesto convocado en el proceso de consolidación.

- Se constituirá nueva bolsa cuando haya convocado un proceso selectivo de un puesto que no se identifique con una bolsa en concreto.

- Se extinguirán las bolsas que no se identifican con ningún puesto de la Relación de puestos de Trabajo (RPT).

Las bolsas de trabajo que se corresponden con puestos de la relación de puestos de trabajo no convocados en los actuales procesos de consolidación se mantendrán en los términos actuales.

Así, el personal del párrafo anterior y el personal integrante de una bolsa extinguida, pasará a integrar una bolsa denominada "Bolsa transitoria".

Esta bolsa se usará únicamente en gestión excepcional de puestos de los grupos de antigüedad C y E, y sólo durante 6 meses desde su creación.



Hirugarrena.- Ebazpen horren III. eranskinean ezartzen dira poltsa iragankorra osatzeko irizpideak. Lehenengo paragrafoan zehazten denez, honako kolektibo hauek osatuko dute lan-poltsa hau, baldin eta kategoria bateko lan-kontratuko langile finko izatera iritsi ez badira edo EAeko Administrazio Orokorreko lan-poltsetako bat ereosatzen ez badute: 1.- Iraungitzen diren poltsetako batekoak direnak, hirugarren artikuluan aipatzen direnak. Zehazki, honako poltsa hauek dira: - Sukalde-garbitzaile laguntzailea - Zerbitzaria - Baliabide orokorretako teknikaria - Automozioko goi-mailako teknikaria - Ikastetxeko peoia (Eibar) 2. Indarrean dagoen lanpostu-zerrendaren arabera, lan-kategoria bateko lan-poltsan daudenek ez dituzte baldintzak betetzen. <i>Laugarrena.-</i> III. eranskinaren bigarren atalean, puntuazioari eta poltsa iragankorraren ordenari buruzko irizpideak zehazten dira. Horrela, poltsa bakoitza osatzen duten langileak jatorrizko lan-poltsan zuten birbaremazioaren puntuazioaren arabera integratuko dira. Iraungitzen den poltsa batekoa baino gehiagokoa bada, gehieneko puntuazioa hartuko da kontuan. Berdinketa hausteko irizpideak ere zehazten dira. Berdinketa gertatuz gero, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4 a) artikuluan jasotako klausula aplikatu beharko da. Hala, berdinketa emakumeen alde hautsiko da deialdiaren lan-kategorian emakumeen % 40tik beherako ordezkari dagoenean, salbu eta beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak baditu, sexuaren ziozko bereizkeriarik eragiten ez dutenak, hala nola enplegua lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea. Kasu honetan, berdinketa bat gertatzen da bi kategoriatan, baina bi gizonen artean, eta, beraz, ez da beharrezkoa berdinketa hausteko irizpide hori aplikatzea. Berdinketa hausteko hurrengo irizpidea proba teoriko-praktikoan (B zatia) lortutako puntuazioa da, proba horretan puntuazio handienetik txikienera ordenatuta. Kasu horretan, ez da hautapen-probarik egin bost lan-poltsa horiek sortzeko, eta, beraz, ezin da irizpidea aplikatu. Berdinketa gertatuz gero, hizkuntza-eskakizuna erabiliko da berdinketa hausteko, hizkuntza-eskakizun	Tercero.- En el Anexo III de la citada Resolución se establecen los criterios de formación de la bolsa transitoria. En su apartado primero, se detalla que "Formará parte de esta bolsa, siempre que no hayan accedido a la condición de personal laboral fijo de una categoría o que no integre ninguna de las bolsas de la Administración General de la CAE, los siguientes colectivos: 1.- Quienes pertenezcan a una de las bolsas que se extinguen, enumeradas en el artículo tercero. Concretamente son las siguientes bolsas: - Ayudante de cocina-limpiador/a - Camarero/Camarera - Técnico/Técnica recursos generales - Técnico/Técnica Superior de Automoción - Peón/Peona centro educativo (Eibar) 2. Quienes pertenezcan a una bolsa de una categoría laboral, para la que de acuerdo a la relación de puestos vigente, no cumple los requisitos. Cuarto.- En el apartado segundo del Anexo III, se definen los criterios en cuanto a la puntuación y orden de la bolsa transitoria. Así, el personal integrante de cada bolsa se integrará por la puntuación de la rebaremación que tenía en la bolsa de origen. En caso de pertenecer a más de una bolsa que se extingue, se tendrá en cuenta la puntuación máxima. También se definen los criterios de desempate. En caso de empate deberá aplicarse la cláusula contenida en el artículo 20.4 a) de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres. Así, el desempate se realizará a favor de la mujer cuando existe una representación inferior al 40% de las mujeres en la categoría laboral correspondiente a la convocatoria, salvo que concurren en el otro candidato motivos que, no siendo discriminatorios por razón de sexo, justifiquen la no aplicación de la medida, como la pertenencia a otros colectivos con especiales dificultades para el acceso y promoción en el empleo. En este caso, se produce un empate en dos categorías, pero entre dos hombres, por lo que no se requiere de la aplicación de este criterio de desempate. El siguiente criterio de desempate es la puntuación obtenida en la prueba teóricopráctica (parte B), ordenados de mayor a menor puntuación en esa prueba. En este caso, no se ha realizado ninguna prueba selectiva para la creación de estas cinco bolsas de trabajo, por lo que tampoco se puede aplicar el criterio. En caso de empate, se usará el perfil lingüístico, ordenados de mayor a menor perfil. Esta vez si se utilizará el criterio.
---	---

handienetik txikienera ordenatuta. Oraingo honetan bai erabiliko dela irizpidea. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, berdinketa hausteko hurrengo irizpidea Langileriaren Kudeaketa zuzendariaren 2024ko urriaren 23ko Ebazpenean argitaratutako letra izango da. Ebazpen horren bidez, 2025-2026 ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesuan eta ikasturte horretan zehar dei daitekeen beste edozein hautaketa-prozesutan alfabeto-hurrenkera zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza jakinarazten da. Zozketaren emaitza "R" letra da. Irizpide hori alfabeto-ordenaren arabera aplikatuko da, lehenengo abizenarekin, bigarren abizenarekin berdin duta jarraituz gero, eta, azkenik, izenarekin. Bosgarrena.- III. eranskineko hirugarren atalean, poltsa iragankor hau osatzen duten langileen egoerak eta lehentasunak zehazten dira. Langileak libre dauden egoeran sartzen dira, eta, besterik adierazi ezean, edozein prestazio-modalitate, lanaldia, ordutegia eta eremu geografikoa hautatzeko aukera izango dute. Aukera horiek aldatu ahal izango dituzte interesdunek lan-poltsen atariaren bidez, eta egiten diren egunaren biharamunetik izango dituzte ondorioak. Seigarrena.- Poltsa horrek 6 hilabeteko indarraldia du sortzen denetik, eta C eta E. antzintasun-taldeetako lan-kontratuko langileen lanpostuetarako aparteko kudeaketaren bidez langileak hautatzeko erabiliko da. Epe hori amaitutakoan, lan-poltsa iraungi egingo da. Zazpigarrena.- Lan-poltsa iragankor honen zerrenda www.euskadi.eus/lan-poltsa atarian argitaratuko da, eta lan-poltsa hori osatzen duten langileek SMS bat jasoko dute esteka batekin, lan-poltsaren, araudi erregulatzailearen eta lan-eskaintzak jasotzen hasteko beharrezkoak diren izapideen parte direla jakinarazteko. Zortzigarrena.- Lan-poltsen kudeaketaren datu pertsonalen tratamendua Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren Tratamendu Jardueren Erregistroan (AGT) egingo da, "Hautaketa-prozesuak" izenekoan. Organo arduraduna Enplegu Publikoaren Zuzendaritza izango da, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dira, bai eta Enplegu Publikoaren Zuzendaritzan datuen tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubideak ere. Ebazpen honen eranskinean zabaltzen da Informazio hau. Azaldutako guztiagatik eta emandako eskumenaz baliatuz, honako hau	De mantenerse el empate, el siguiente criterio de desempate será la letra publicada en Resolución de 23 de octubre de 2024, del Director de Gestión de Personal, por la que se hace público el resultado del sorteo de la letra que determinará el orden alfabético en el proceso de gestión de personas candidatas a sustituciones durante el curso escolar 2025-2026, así como en cualquier otro proceso selectivo que pueda convocarse a lo largo de dicho curso escolar. El resultado del sorteo es la letra "R". Este criterio se aplicará por orden alfabético en primer lugar con el primer apellido, de persistir el empate con el segundo apellido y por último con el nombre. Quinto.- En apartado tercero del Anexo III, se definen las situaciones y preferencias del personal integrante de esta bolsa transitoria. El personal se integra en la situación de disponible y tendrá por defecto determinadas las opciones de, cualquier modalidad de prestación, de jornada, de horario y de zona geográfica. Opciones que podrán ser modificadas por las personas interesadas a través del Portal de Bolsas de trabajo y que surtirán efectos a partir del día siguiente al que se efectuen. Sexto.- Esta bolsa tiene una vigencia de 6 meses desde su creación y se utilizará para la selección de personal por gestión excepcional para puestos de personal laboral de grupos de antigüedad C y E. Finalizado este plazo esta bolsa se extinguirá. Septimo.- El listado de esta bolsa transitoria se publicará en el Portal de Bolsas de Trabajo www.euskadi.eus/bolsastrabajo y, el personal que integre esta bolsa de trabajo recibirá un SMS con un enlace en el que se le informará que forma parte de la bolsa de trabajo, de la normativa reguladora y de los trámites necesarios para empezar a recibir ofertas de trabajo. Octavo.- El tratamiento de datos personales de la gestión de las bolsas se realizará en el Registro de Actividades de Tratamiento (RAT) del Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno, denominado "Procesos selectivos", siendo el órgano responsable la Dirección de Empleo Público y pudiendo ejercitarse los derechos de acceso, rectificación y supresión de datos, así como de limitación u oposición a su tratamiento ante la Dirección de Empleo Público. Información que se amplía en el Anexo a la presente resolución. Por todo lo expuesto y en virtud de la competencia atribuida,
--	---



EBAZTEN DUT

Lehenengo artikulua.- Berrantolaketaren ondoren lan-poltsa iragankorra osatzen duten langileen zerrenda argitaratzea, Enplegu Publikoaren sailburuordearen azaroaren 15eko 2025/108 Ebazpenaren III. eranskineko irizpideen arabera.

Bigarren artikulua.- Lan-poltsen atarian argitaratuko da, egoitza elektronikoaren eta helbide honen bidez:

www.euskadi.eus/lanpoltsak

[Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen lan-poltsak - Enplegu publikoa](#)

Hirugarren artikulua.- Lan-poltsa iragankorra osatzen duten langileen zerrendak lan-poltsen atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

Enplegu Publikoko Sailburuordea
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA

RESUELVO

Artículo primero. – Publicar el listado del personal integrante de la bolsa de trabajo transitoria tras la reordenación conforme a los criterios del Anexo III de la Resolución 2025/108, de 15 de noviembre, de la viceconsejera de Empleo Público.

Artículo segundo. - La publicación se realizará en el Portal de Bolsas de Trabajo, al que se puede acceder a través de la sede electrónica y de la siguiente dirección:

www.euskadi.eus/bolsastrabajo

[Bolsas de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos - Empleo público](#)

Artículo tercero.- El listado de personal integrante de la bolsa de trabajo transitoria surtirá efecto a partir del día siguiente de su publicación en el Portal de bolsas de trabajo.

Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica

Viceconsejera de Empleo Público
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA

ERANSKINA	ANEXO
DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA Tratamendu-jarduera: Datu pertsonalak tratatu eta "Hautaketa-prozesuak" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira: • Arduraduna: Enplegu Publikoaren Zuzendaritza, Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernu Saila. • Helburua: - o Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioak eta lan-kontratuko langileak enplegu publikoan sartzeko prozesuak kudeatzea. - o Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lanpostuetarako lekualdatze-lehiaketak eta zerbitzu-eginkizunak kudeatzea. - o Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen aldi baterako lan-eskaintzak kudeatzea (eratzea, integratzea eta birbarematzea). - o Lan-poltsak osatzen dituzten langileen datuak beste administrazio batzuei jakinarazten zaizkie. • Interesdunen kategoriak: - o Epaimahaikideak - o Hautaketa-prozesuetako parte-hartzaileak - o Administrazio orokorreko langileak - o Euskal Sektore Publikoko langileen kudeatzaileak • Datuak komunikatzeko hartzaileen kategoriak: - o Sindikatuak eta langileen batzordeak - o Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen da. Lan-poltsak eta datuak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko eta sektore publikoko erakunde batzuei eman ahal izango zaizkie. • Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea dago, baita informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere. • Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta zehatza web orri honetan kontsulta daiteke: Tratamendu-Jardueren Erregistroa (TJE) • Araudia: - o Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra. - o 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.	INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS Actividad de tratamiento: Los datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada: "Procesos selectivos": • Responsable: Dirección de Empleo Público, Departamento de Gobernanza, Administración Digital y Autogobierno. • Finalidad: - o Gestión de procesos de acceso al empleo público de personal funcionario y laboral de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos. - o Gestión de concursos de traslados y comisiones de servicios a puestos de trabajo de personal funcionario y laboral de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos. - o Gestión de bolsas de trabajo (constitución, integración y rebaremación), de ofertas de trabajo de carácter temporal de personal funcionario y laboral de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos. - o Los datos del personal integrante de las bolsas de trabajo se comunican a otras Administraciones. • Categorías de personas interesadas: - o Miembros del tribunal - o Partipantes en procesos selectivos - o Personal de la administración general - o Gestores de personal del Sector Público Vasco • Categorías de personas destinatarias para comunicación de datos: - o Sindicatos y juntas de personal - o Se publica en el Boletín Oficial del País Vasco. Los datos del personal integrante de las bolsas de trabajo podrán ser facilitados a otras Administraciones Públicas y entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. • Derechos: Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional. • Información adicional: Puede consultarse la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en esta página web: Registro de Actividades de Tratamiento (RAT) • Normativa: - o Reglamento General de Protección de Datos. - o Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.